

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Añana-Sobron

DBH (1º zikloa)

ARLOA/IKASGAIA: Natur zientziak.

Keinu bakoitzaren aztarna

Gure erabaki bakoitzak planeta osoan aztarna ikusezin bat uzten du. Nola mugitzen garen, kontsumitzeko ditugun ohiturek edo erosketak egiteko moduek eragin zuzena dute ingurumenean eta kliman. Esperientzia honetan, ikasleek modu praktiko eta parte-hartzailean ezagutuko dute zer den karbono-aztarna eta gure ekintzen arabera CO₂ emisioa aldatzen dela.

Jolas, talde-erronka eta egunero bizitzen ditugun ekintzen antzeko dinamika bidez, ikasleek hausnartuko dute energia-kontsumoari, hondakinei, elikadurari eta egunerokotasuneko produktuen jatorriari buruz. Esperientzia hurbil eta motibatzaile honek gure ingurumen-inpaktua murrizteko beste aukera jasangarri eta errealistak bilatzera gonbidatzen du. Ikasiko dute bakoitzaren keinu txikiek ere aldaketa kolektibo handiak sor ditzaketela.